

Uxue Razquin Olazaran

Nola esaten zaio agur ama bati

Itzulpena: Irati Jimenez



erein

NOLA ESATEN ZAIO
AGUR AMA BATI

Obra honen edozein erreproduzio modu, banaketa, komunikazio publiko edo aldaketa egiteko, nahitaezkoa da jabeen baimena, legeak aurrez ikusitako salbuespenezko kasuetan salbu. Obra honen zatiren bat fotokopiatu edo eskaneatu nahi baduzu, jo CEDROa (Centro Español de Derechos Reprográficos, www.conlicencia.com; 91 702 19 70 / 93 272 04 47).

Liburu honek Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politika Sailaren dirulaguntza jaso du.

1. argitalpena: 2026ko urrian

Jatorrizko izenburua:

Cómo se le dice adiós a una madre

Itzulpena:

Irati Jimenez

Azalaren diseinua:

Iván Landa

Maketazioa:

Asier Beltza

Barneko irudiak:

Nahia Sanchez Razkin

Mikel Martin Zapirain

© Uxue Razquin Olazaran

© EREIN. Donostia 2026

ISBN: 978-84-1093-133-6

L.G.: D 795-2026

EREIN Argitaletxea. Tolosa Etorbidea 107

20018 Donostia

T 943 218 300

erein@erein.eus

www.erein.eus    

Inprimatzailea: Gertu inprimategia

Zubillaga industrialdea, 9

20569 Oiñati, Gipuzkoa

T 943 783 309

gertugrafika@gmail.com

www.gertu.net



Liburu hau inprimatzeko erabili den papera ekologikoa da eta modu jasagarrian kudeatutako basoetatik dator.

NOLA ESATEN ZAIO AGUR AMA BATI

Uxue Razquin Olazaran

Itzultzailea: Irati Jimenez



*Amatxo maitea; bihotza nirea, nire laztana,
eta nik ez dakit beste zenbat gauza*

ITZULTZAILEAREN OHARRA

Bere amaren gaixotasunaren eta heriotzaren kronika egiteko eta horrenbeste maite zuen bere amari hitz egiteko, liburu honen egileak amarekin konpartitzen zuen hizkuntzan idatzi zuena euskarara ekartzea –biok konpartitzen dugun nire ama hizkuntzara ekartzea– opari handi bat izan da niretzat, eta behin baino gehiagotan bertigoa eragin didan pribilejio are handiago bat.

Testu bat itzultzeak beti eskatzen du jatorrizkoaren ezagutza intimoa, eta testu horrekin oso intimoa den harreman bat izatera eramán gaitzake, baina liburu honetan dagoen intimitaterik handiena beste bat da. Egileak bere irakurleekin konpartitzen duen intimitate monumental bat, bere bizitzako unerik samingarrienak konpartitzerakoan irakurleoi eskaintzen diguna, erabaki literario guztiak egiaren zerbitzura jarritz, eta bere egaririk sakonenak literaturari eskainiz, eskuzabaltasun, zintzotasun, eta adore handi batekin, eta maitasun

are handiago batekin. Hasieran, testu laburren bidez, tinko eutsiz uneoro emozioari, ez dezan benetako oroitzapenen egiarekin interferentziarik eragin; gero, emozioari ate guztiak zabalduz, uholde baten antzera, giza bihotzaren egian dagoen botere guztia sentitu dezagun. Bi parteetan, irakurleak indar berbera sentituko du, fedeak ematen duena, idazle batek benetan sinesten duenean literaturaren zeremoniak beti dakarrela errebelazioa, eta egotekotan, literaturan dagoela salbazioa.

Eskerrak eman nahi dizkiot Uxueri, izendagaitzak zaizkigun gauzak izendatzeko hitzak topatzeagatik. Eta izendaezinak ziren gauzei izenez deitzen laguntzeagatik.

Hitz horiei justizia egiten ahalegindu naiz.

IRATI JIMENEZ
2026ko ekainean

Zati bat apurtzen zaila da. Hortik datorkio irau-
teko gaitasuna. Garai guztiei buruz dakigun guz-
tia zatituta heldu da gugana: osatugabetasuna ia
baldintza da, zentzua izango badu. (...) hondaki-
nen gainean eraikitzen dugu. Historiak, mintzai-
rak, bizitzak. Jakitea, imajinatzea, dena da hutsik
dagoen espazio hori betetzea. Zeren zatiak esaten
baitigu zer falta den harrapatua izan gabe.

ERNESTO HERNÁNDEZ BUSTO

La ruta natural

(...) Orain hobeto ulertzen dut
besteen heriotzen zama
aspaldi jasaten daramatenen
oinaze nagia:

bizi direnen presentzia
gure bistatik aldentzen diren ahala
lausotzen baita,
soinean daramatelako
eta haixek direlako
haren erantzule bakarrak (...)

JOKIN ERKOREKA
Banda

Horrela egiten dut nik zuloa: azazkalik gabe
aurpegia zikin eta eskuak ezerezera luzatuta

zuloa egiten dut badakidan arren lur honek
ez duela hondorik
zuloa egiten dut badakidalako lur honek
ez duela hondorik

nekatzen naizenean ateratzen naiz azalera
astintzen ditut nire jantziak
eta asmatzen dut istorio bat azalduko duena
atzamarren artean geratu zaidan lokatza

IRATI ITURRITZA ERREA
Brazos cortos

«ZERGATIK HITZ egiten diozu ez badizu entzuten?», galdetu nion. Berak begiratu egin zidan, beste gabe, eta haserretu egin nintzen. «Zergatik hitz egiten diozu ez badizu entzuten?», errepikatu nion, amarengana hurbiltzen zelarik. Borroka bila nenbilen. «Berak hemen jarraitzen duelako eta beste guztiei ematen diegun tratu berbera merezi duelako. Eta guri lagundu egiten digu; bestela guretzat oso zaila litzateke gelara sartzea». Pazientzia handiz azaldu zidan. Nik ez nuen bere errukirik nahi. Besaulkitik altxatu nintzen. «Ez zaio asko geratzen», esan nuen. Besoak gurutzatu nituen, neure negarra soka batekin inguratu nuen, korapilo bat egin nion, eta indarrez estutu nuen. Insistitu egin nion: «Ez zaio asko geratzen». Ehun eskurekin estutu nuen.

Azalberritzea egina zuen suge batek; atzean utzitakoa zen nire ama: zaharra, inutila, erabili eta botatzekoa. Esnatuko balitz, ezingo luke ibili, pentsatu

nuen. Zutik jarri, izarak kendu, ohetik atera, atea zabaldu, pasilloa zeharkatu, igogailuan beheko solairura jaitsi, ate nagusitik atera, etxera iritsi arte hogei minutu ibili. Ezingo luke. Azal hutsak ezin dira ibili. Arrakalatu baino ez dira egiten, usteldu. Nire ama usteltzen ari zen. Ikuskizun groteskoa zen eta nik ezin nion begiratzeari utzi; lasaitu egiten ninduen bere arnasa zatatsiak, kexatiak. Eta era berean neure onetik ateratzen ninduen. Berak bertan segitzen zuen. Zergatik? Zergatik luzatu behar zuen horrenbeste?

«Asko tardatzen dute lotan jarri ondoren?», galdetu nion erizainari. «Zer esan nahi duzu?», erantzun zidan serio. «Ea asko tardatzen duten... joaten», esan nion, ahots txiki batekin, lotsatuta. «Orain ez pentsatu horretan». Joan baino lehen, amari agur esan zion, «agur, polita», eta gauean itzuliko zela agindu, «gauean itzuliko naiz, nola zauden ikusteko». Berriz eseri nintzen besaulkian. Gelaren bazterretik begiratu nion, negarra ordurako indarra galdua, ohe hutsari.

GRADU BUKAERAKO LANA aurkeztu eta hurrengo egunean, hogeita bost urte nituela, nirea ez zen minbizi bati egin behar izan nion aurre. Herio zigor bati. Ikasletik zaintzailera pasatu nintzen. Boligrafoetatik heparina injekzioetara. Autobusetik anbulantziara. Motxilatik karrotxo gurpildunera. Azterketetatik analisietara. Aukera anitzeko galderak. CA 15-3. CA 27-29. Hiztegi berri bat: Biopsia. Kartzinoma. Erradioterapia. Kimioterapia. Tumorea. Metastasia.

Lehen ezezaguna zitzaidan hizkuntza berri batek sostengatzen zuen orain nire etxea. Ezagunak egin zitzaizkidan ordura arte beste batzuenak ziren hitzak: indarberrituta iritsi ziren, nire baitan metatu eta askatu ziren; haizea altxatu zen. Hitzak inolako abisurik gabe aldatu ziren, inguratzen ninduen desagertu egin zen: puf. Marrazki bizidunetan horrela izaten da: lehen hemen zegoena orain ez dago, ke bonba bat,

eta gero ezer ez. Magoaren trukoa, txisteratik untxi bat ateratzen duenean. Nola egin ote du?

Ospitalea gure etxe bihurtu zen. Hitzak dudamudatan estreinatu genituen; ahots goran esaten genituen, konjuru batean bilduta, mundu berri hartara sartzeko behar genuena zen. Tripetatik ateratzen ziren, negarraren leku beretik. Beldurra ematen diguna izendatzearen garrantzia.

Gela bat, oihartzunarekin.

GORPUE ESTALTZEKO ohitura daukagu, eta hobian lurperatzekoa. Bestela, gogorregia izango litzateke. Ezingo genuke mahai gainera atera, dataz iraungitako haragi xerra baten antzera; pentsa ze usain izango lukeen, imajinatu kolore gris hori... Zer egingo dugu berarekin? Badakigu gorpu bat nola usteltzen den. Ez dugu bizi izan, baina kontatu digute, irakurri dugu. Zenbat denbora behar du usteltzeko? Eta nire amak zenbat beharko du? Kutzaren barruan begiratu behar izan nuen enteratu ginenean, kasualitatez, amak zauri bat ezkututzen zuela bularrean. Zulo bat zeukan, irregularra. Zornea zerion. Zorne beltza. Inoiz ikusi nuen gauzarik inhumanoena zen. Zulo hartatik edozer atera zitekeen. Berak ez zuen ezer esan, bertan geratu zen, zulo hori betidanik zeukala zirudien, jaiotzeko marka bat bezala. Urteak zeramatzan heriotzarekin bizitzen.

Bularreko minbizia zeukala jakin genuen egunean, ahizpa eta biok berarekin geunden, bere ohean eserita, bakoitza alde batean. Dutxatzen lagundu behar izan genion egun hartan, asteak zeramatzan ia ibili ezinik, ia ezin zutitu. Zurbilduta zegoen, oso gutxi jaten zuen. Ziatika, esaten zigun. Eta guk onartu, galderarik gabe. Ez zuen zertan gezurrik esan, min hori ondo ezagutzen zuen.

Bion artean dutxatik atera genuenean, titiak estali zituen, pudoreak aginduta. Albornoa jarri eta gerrikoa estutu ondoren, ohean utzi genuen. Amak buelta emateko eskatu zigun; pribatutasuna eskatzen zigun, negarrez. Sujetadorea jartzen saiatu zen, gehiegi bere hezurrentzat. Ahizpak buelta eman zuen, eta orduan ikusi zuen. Kolpeka hasi zen negarrez. Ni zorabiatu egin nintzen bularreko zuloari aurrez aurre begiratu nionean. Ez zidaten nazkarik eman ez zauriak ez odolak —une hartan, ikusi egiten nuela iruditu zitzaidan, nahiz eta ez dakidan tumoreak odolatan egon daitezkeen—. Zauri hark esan nahi zuen amak ez zuela berriro atea angelu jakin batean erdi zabalik utziko, ez zuela sekula berriz txokolate pusketa bat sartuko opil suitzar batean niri askaria emateko, ez zuela berriro nirekin irakurriko. Galdu egingo nuen, zulo horrek irentsi egingo zuen. Ez nion agur esan nahi. Nola esaten zaio agur ama bati?

EZ NUEN ama ikusi nahi. Horregatik itxi egiten nituen begiak. Begiak ixten nituen bizigarriak zitzaizkidan oroitzapenak erreskatatzeko eta ordezkotzat horiek erabiltzeko. Neure aurrean neukana desegin nahi nuen: horma zuriak, ohe ortopedikoa, izurritz beteriko haren aurpegia, haren ile zimela, haren besoak, besarkatu ezin zutenak –tolesten zirenean, erori egiten ziren, zeukaten pisu guztiarekin, gorputzaren alde banatan, harri lokabeak bailiran—. Ezagutzen ez nuen haren usain hura desegin nahi nuen, usain nazkagarri hura, norbaiti lapurtua behar zuena. Desegin nahi nituen gorakoak, eta eldarnioak. Egun on, arratsalde on, gabon guztiak. Erizainenak. Medikuenak. Laguntzaileenak. Garbitzaileenak.

Desegin, tumorea; desegin, gaixotasuna.

Ahul, ahotsik gabe.

Ez ukitu. *Debekatuta dago argazkiak ateratzea.*

EMAN ZIGUTEN epaia argia zen: «Sei hilabete geratzen zaizkio». Medikuek argazkiak atera zizkioten amaren minbiziari; tumore bat, bularrean hazten zihoana, inolako tratamendurik gabe, nolabaiteko grial saildu bat izan behar zen beraientzat. Hasieran mediku bat etorri zen, gizona; gero beste bat, emakumea. Bost gero, talde berean. Niri debekatu egin zidaten barrura sartzea. «Inoiz ez dugu horrelakorik ikusi», esan zuen atera zen lehenak, nirekin hitz egiteko ze aurpegi jarri behar zuen pentsatu gabe. «Klausurako mojetan bakarrik». Nik buruarekin baietz esaten nion, besterik ez. «Ez dakidana da mina nola aguantatu duen». Neuk ere ez nekien. «Minbizia laugarren fasean dago, hezurretaraino egin du metastasia. Hiperkaltzemia batekin heldu da hona. Apurtuta ditu hezurrak, bat baino gehiago». Zer? «Ez zenekiten?». Ez. «Ze gauza bitxia, ezta?». Bitxia bai, oso. Gelako ateak Oesteko

saloi batenak ziruditen, bakero pelikuletakoak bezala.

Ettxera joan nintzen, eta bidean, soberan sentitzen nituen eraikinak, parkeak, gauaren koloreak. Ez dut pieza gehiago moztu eta itsatsi nahi. Tipula bat eraman nahi nion, hori zen buruan neukan gauza bakarra. Erdibitu eta ospitaleko ohearen ondoan utzi. Tipulak onura asko ditu. Amak hori esaten zigun gaixotzen ginenean.

AMA zatika apurtzen ari zen. Bere gorputzaren hondakinak botata ohearen inguruan. Baimena eskatzen nion, makurtzeko eta lanean hasteko: astiro-astiro jasotzen nituen eta zeuden moduan uzten saiatzen nintzen, ezagutzen nuen figura osatu nahian, mila pieza-tako puzzlea bezala. Begi bazterretik begiratzen nion, ez zuen ezer esaten. Neuk ere ez. Umetatik nirekin konpartitu dituen sekretuekin akordatzen naiz. Inportantea ahaztu egin zitzaion, bizitza oso bat balio zuena. Gaitza ezkutatzek haserretu egin ninduen, baina hiltzorian dagoen norbaiti ezin diozu ezer leporatu.

Nik eserlekuan irakurtzen nuen, berak sabaiari begiratzen zion. Batzuetan, elkarrizketa labur bat. «Min ematen dizu?». «Ez». Ezin zen gaixotasuna aipatu, ezta minbizia ere. Minbizi bakar bat ere ez. Baina are gutxiago berea. Ama beste zerbaitegatik zegoen han. «Hezurak konpondu behar dizkidate», esaten zuen.

Bere aurrean ukatu egin behar izaten genuen, koplak egin behar genituen, teatroa. Hemen ez dago zer ikusirik. Segi aurrera.